

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	OSTATUETAKO SOLAIRUEN ETA ZONA KOMUNEN GARBIKETA ETA PRESTAKETA	Iraupena	60
		Baldintzatua	
Kodea	UF0039		
Lanbide-arloa	OSTALARITZA ETA TURISMOA		
Lanbide-eremua	Ostatatzea.		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ostatuetako solairuetako oinarrizko lanak	Maila	1
Prestakuntza-modulua	Ostatuetako logelen eta zona komun txukunketa.	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Ostatuetako sukalondoaren hornikuntza eta antolamendua	Iraupena	30
	Bezeroarentzako arreta ostatuetako solairuen garbiketan		30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0706_1 gaitasun-ataleko LB2, LB3, LB4, LB5 eta LB8 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Solairuen eremuko oinarrizko hornikuntza osatzen duten ekipoak, makinak eta tresnak erabiltzea, haien aplikazioen eta errendimendu egokiaren arabera.

EI1.1 Solairuen eremuan erabili ohi diren ekipo-, makina-, erreminta- eta tresna-motak, eta haien erabilera eta arriskuak azaltzea.

EI1.2 Solairuen eremuan erabili ohi diren ekipo, makina, erreminta eta tresnen aplikazioak, garbiketa eta mantentze-lanak deskribatzea.

EI1.3 Solairuen eremuko makinak eta tresnak garbitzeko eta mantentzeko kasu praktikoetan:

- Garbitzeko eta mantentzeko beharrezko produktuak eta tresnak hautatzea.
- Ostatatze-establezimenduetan garbitzeko erabili ohi diren makinaren erabilerako mantentze-lanak egitea (xurgagailuak, lurrun bidez garbitzeko makinak, distira emateko makinak, argizari-makinak, leuntzeko makinak).
- Makinak, erremintak eta tresnak garbitzea.

EI1.4 Solairuen eremuko logelak, zona nobleak eta eremu komunak garbitzeko eta prest jartzeko erabiltzen diren ekipoez, makinez eta tresnez arduratzea.

A2: Logelak, zona nobleak eta eremu komunak garbitzeko eta prest jartzeko teknikak aplikatzea, makina eta tresna egokiak erabiliz.

EI2.1 Ostatatze-establezimenduetan erabiltzen diren orotariko zoladurak, ehun-elementuak, materialak eta estaldurak identifikatzea eta haietako bakoitzaren ezaugarriak garrantzikoak deskribatzea.

EI2.2 Gainazalak garbitzeko, mantentzeko eta kontserbatzeko produktuak, desinfektatzaileak, intsektizidak eta aire-gozagarriak identifikatzea, eta adieraztea haien osagai nagusiak, haien erabiltzeko modu zuzena eta aplikaziorik ohikoena zein diren.

EI2.3 Ostatatze-establezimenduetan harrera egiteko zer produktu eta mihiseria erabiltzen diren jakitea.

EI2.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkaten logelak, zona nobleak eta zona komunak garbitzeko eta prest jartzeko kasu praktikoetan:

- Beharrezko produktuak, tresnak eta makinak hautatzea.
- Planteatutako kasurako garbiketa-teknikarik egokiena hautatzea.
- Adierazitako ordenan eta finkatutako metodoak erabiliz garbitzea eta prest jartzea logelak eta eremu publikoak, eta kontuan izan beharrezko funtsezko puntuak zein diren aditzera ematea.
- Bezeroen, pazienteen edo, oro har, erabiltzaileen arropa partikularra biltzeko, garbitzera bidaltzeko eta haren falta osatzeko egin beharrezko izapideak eta ibilbidea deskribatzea.
- Bezeroek hala eskatzen dutenean, bagajeak egitea, norbaitek gainbegiratuta.
- Obrak eta pintaketa-lanak direla-eta egin beharrezko blokeoetarako prestatzea gelak, jasotako argibideei jarraikiz.
- Ekitaldi espezifikotarako aretoak muntatzea argibideei jarraikiz.

EI2.5 Bezeroek edo erabiltzaileek ahaztuta utzitako objektuak nola prozesatu zehaztea.

EI2.6 Instalazioak eta ekipoak mantentzeko eta zaintzeko konpromisoa hartzea, eta prozesuan erabilitako produktuei ahalik eta etekin handiena ateratzea, beharrezkoak ez diren kostuak eta higadurak saihestuz.

EI2.7 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkaten kasu praktikoetan, prozesu osoan kalitatea hobetzen parte hartzea.

EI2.8 Ezarritako epeetan amaitzea norberaren lan-planeko zonen garbiketa eta prestaketa.

EI2.9 Nagusiekin eta lankideekin eraginkortasunez komunikatzea, erakundean ezarritako kanalak errespetatuz.

A3: Altzariak eta dekorazio-elementuak garbitzeko eta haien mantentze-lanak egiteko teknikak aplikatzea, produktu eta tresna egokiak erabiliz.

EI3.1 Ostatatze-establezimenduetan gehien erabiltzen diren logeletako, aretoetako, eremu publikoetako eta lorategietako altzari-mota bereizgarriak identifikatzea.

EI3.2 Ostatatze-establezimenduetan erabili ohi diren dekorazio-elementuak identifikatzea.

EI3.3 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, dekorazio-elementuak eta altzariak garbitzeko, mantentzeko eta kontserbatzeko teknikak aplikatzea, erabil daitezkeen materialak eta produktuak eta kasu bakoitzerako teknikarik egokiena erabiliz.

EI3.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, barneko landareak eta lore- eta fruta-konposizio sinpleak mantentzea eta kontserbatzea, irizpide estetikoak, urtarokotasun-irizpideak eta jaiegunak kontuan izanik.

EI3.5 Instalazioak eta ekipoak mantentzeko eta zaintzeko konpromisoa hartzea, eta prozesuan erabilitako produktuei ahalik eta etekinik handiena ateratzea, beharrezkoak ez diren kostuak eta higadurak saihestuz.

EI3.6 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, prozesu osoan kalitatea hobetzen parte hartzea.

A4: Logelak, zona nobleak eta eremu komunak prestatzeko prozesuetan segurtasuna, higiena eta osasuna zaintzeko arauak eta barne-neurriak ezagutzea eta aplikatzea.

EI4.1 Segurtasunaren, higienaren eta osasunaren arloan indarrean dauden arauak identifikatzea eta interpretatzea; batik bat, logelak, zona nobleak eta eremu komunak prestatzeko zereginetan eragina dutenak.

EI4.2 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, zuzen erabiltzea ekipoak, makinak eta tresnak maneiatzeko beharrezko babesak, hala nola betaurrekoak, eskularruak eta maskarak, eta egoki interpretatzea produktuak eta makineria maneiatzeko segurtasun- eta higiena-araudia.

EI4.3 Makinak, tresnak eta erremintak oker erabiltzearen ondoriozko kalteak eta arriskuak identifikatzea.

EI4.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkaten kasu praktikoetan, segurtasun- eta ingurumen-irizpideak aplikatzea produktu kimikoak maneiatzean.

Edukiak

1. Ostatatze-jarduerak egiten dituzten enpresetako altzariak eta dekorazioa

- Altzariak: sailkapena, deskribapena eta oinarritzko neurriak, haien ezaugarrien, funtzioen eta aplikazioen arabera eta ostatu-motaren eta -kategoriatan arabera; kokapena eta banaketa.
- Estaldurak, alfondrak eta gortinak: ostatu-motaren, -kategoriatan eta -formularen arabera sailkapena eta ezaugarriak.
- Beste dekorazio-elementu batzuk.
- Altzariak eta dekorazio-elementuak garbitzea eta mantentzea. Erabiltzen diren produktuak. Aplikazioak. Teknikak.
- Logeletako tenperatura eta argiztapena.
- Lore-dekorazioa: Teknikak. Aplikazio sinpleak.

2. Ostatuetako logelen, zona nobleen eta eremu komun garbiketa eta prestakuntza

- Ekipoak, makinak, tresnak eta erremintak: Deskribapena. Aplikazioak. Garbiketa eta erabilerako mantentze-lanak. Erabiltzeko segurtasun-arauak.
- Garbiketara erabiltzen diren produktuak: Motak. Aplikazioak. Errendimenduak. Onurak eta eragozpenak. Arriskuak: identifikazioa, kausarik ohikoenak eta prebentzioa.
- Garbitzeko teknikak: Deskribapena. aplikazioa; emaitzak kontrolatzea.
- Prest jartzeko beste eragiketa batzuk. Bagajeak egitea. Obrak eta pintaketa-lanak direla-eta egin beharreko blokeoetarako prestatzea gelak. Aretoak ekitaldi espezifikoetarako muntatzea.

3. Logelak, zona nobleak eta eremu komunak prestatzeko prozesuetan segurtasun-, higiena- eta osasun-araudia aplikatzea

- Araudi espezifikoak identifikatzea eta interpretatzea.
- Logelak, zona nobleak eta eremu komunak prestatzeko instalazioen eta ekipoen higiena-eskakizun nagusiak.
- Osasun eta higiena pertsonala. Faktoreak. neurketa; materialak eta aplikazioak; zauriak eta haien babesa.
- Prebentzio- eta babes-neurriak.
 - Solairuen eremuko instalazioetan.
 - Logelak, zona nobleak eta eremu komunak garbitzeko eta prestatzeko makinak, ekipoen eta tresnen erabileran.
- Norberaren segurtasunerako ekipamendua. Babes-jantziak: motak, egokitzapena eta araudia.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpiderik gabe.

Prestakuntza-atal hau egiteko gaitasuna izan behar du UF0038: Ostatuetako sukaldararen hornikuntza eta antolamendua

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ostatuetako solairuetako oinarritzko lanak